

ARIGERA proiektua
1. fasea

2000-2002

2000

- **AURKEZPENA**

2000-01-22, larunbata. 12:00

Aurkezpena Udaletxeko Pleno aretoan egin genuen. Bertan 120 bat lagun elkartu ginen.

Mahaian: Alkatea, Elgoibarko Izarrako Presidentea, euskaltegietako bi zuzendariak eta euskaltegi bakoitzeko ikasle bat egon ziren.

Mahaiaren atzeko aldean: bi euskaltegietako 10 ikasle.

Ekitaldia:

- Mahaiko guztiek hitz egin zuten.
- Jokin Martinezek "Kutsidazu bidea Ixabel" liburuko pasarte bat irakurri zuen.
- Mikel Dakintak txiste batzuk kontatu zituen.
- Rosa Pallas, euskara ikasle kataluniarrak, euskaraz eta katalunieraz hitz batzuk.
- Itxaropena abesbatzakoek Euskal Herrian Euskaraz abestu zuten ekitaldiari amaiera emateko. Bi euskara ikaslek eskusoinua jo zuten.

Luntxa Baltasar Pelotazale elkartearen. Jende asko gerturatu zen hona ere.

- **PROMOZIOA**

Otsailean

Azken lau urteetako eta momentuko euskaltegietako euskara ikasleei proiektua ezagutzera eman eta ARIGERAn parte hartzeko aukera luzatu.

Prentsan eta irratietan proiektuaren berri eman.

- **EUSKAL OFF ANTZERKIA**

2000-02-04, ostirala.

Udalak antolatu eta ARIGERA laguntzaile.

180 bat lagun.

- **DATU BASEA OSATU**

2000-03

ARIGERAn parte hartzeko prest dagoen jendearen datu basea osatu. 82 lagunek eman zuten izena.

- **GELAZ GELA ARIGERAREN AURKEZPENA EGIN**

2000-03

ARIGERAn parte hartzeko prest azaldu ziren guztiekin bilerak egin (7 bilera). Bilera hauen helburua proiektua azaltzea, teknikaria ezagutzea eta proiektuari buruzko euskara ikasleen inpresioak jasotzea izan zen.

- **OSKORRI & THE PUB IBILTARIA**

2000-05-31, asteazkena. 19:30etan.

Antolatzailea Udala, ARIGERA laguntzaile.

300 bat lagun egon ziren. Haur asko, seguruenez eguna eta orduagatik.

Euskaltegietako jende gehiegi ez zen egon baina gutxienez klaseetan kantuak landu zituzten. Jendea hasieratik hasi zen kantuan eta giro polita egon zen.

- **ARIGERA JAIXA**

2000-06-30

40 lagun egon ziren afaltzen Toletxeko terrazan.

Trikitilariak ere egon ziren.

Afalurretik txikiteoa egin genuen, 15 bat lagun.

Afaria oso pobrea izan zen.

Giroa lasaia baina ondo pasatu zuen jendeak. Afalostean trikitilariak jo zuten.

Kantuan aritu ginen eta trikitixa ikastaroko batzuk dantzan ere bai.

- **MATRIKULAZIO KANPAINA BATERATUA**

2000ko irailean ARIGERA proiektuak erdaldunak euskara ikastera animatzeko diptiko bat atera zuen. Diptikoan ARIGERA proiektua osatzen duten lau elkarte eta erakundeen telefono eta helbideak azaltzen ziren. 3600 ale banatu genituen (Barrenarekin (Elgoibar, Mendaro eta Altzolan), euskaltegietan, ikastetxeetan eta Gurean Bai Hitzarmeneko elkarteetara).

Ikastetxeetako zuzendariekin egon da ARIGERAko teknikaria gurasoengana iristea beraientzat errazagoa denez inplikazio eske.

- **Talderik gabe gelditutako 2 ikasle talderatu.**

Jende askok izena ematen du euskara ikasteko baina, ordutegi edota talde faltagatik batzuk talderik gabe gelditzen dira. Arazo honi irtenbidea emateko, kurtsoa hasita zegoenean bi euskaltegietan talderik gabe gelditu ziren 7 lagun izenak jaso zituen proiektuko teknikariak. Beste euskaltegian beraientzako moduko taldea 3 lagunek zuten, beraiekin hitz egin eta horietako 2 ikasten hasi ziren. Hirugarrenak Eibarren eman zuen izena.

2001

- **Elgoibarko helduen euskalduntze-alfabetatzearen historia jaso ARGITARATU eta AURKEZTU.**

2001-01-25

Aurkezpen mahaiari: Euskaltegiaren zuzendariak, Euskara Batzorde Burua, E. Izarrako presidentea, Euskadiko Kutzako eta Kutzako zuzendariak.

800 aleko tirada

- **HELDUEN EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEARI OMENALDIA**

2001-01-27, zapatua. 14:30-21:00

110 lagun inguru elkartu ginen, batez ere edadetuak. Gazteen presentzia faltan sumatu zen.

Hartzubi jatetxean izan zen. Zerbitzu eskasa baina lokal egokia. Arazotxo batzuk izan genituen bazkalaurretik baina bazkalordurako dena konpondu zen.

Omenaldi ekitaldia ondo egon zen.

Omenduak:

ERAGILEAK: Eliza, Udala, Batzokia eta Ikastola.

PERTSONAK: Juan M^a Mendizabal, Pako Juaristi eta Felix Etxeberria.

Euskara ikasleak

Euskara irakasleak

Joan ziren guztiei liburuxka eta llibero bat eman genien eta gustukoak izan zirela esan dezakegu.

Musika: Aitor Furundarena trikitilaria. Oso ondo. Azkenak 21:00ak arte gelditu ginen Furundarekin dantzan eta kantuan, nahiz eta askok lehenago alde egin.

- **ZAHARRAK BERRI kanpaina**

Aurkezpena egin aurretik, 100 laguni ZAHARRAK BERRI kanpainari buruzko informazioa bidali genien eta parte hartzeko prest egongo zirenei erantzuteko eskatzen zitzaien. 8 lagun agertu ziren laguntzeko prest.

Aurkezpen publikoaren aurretik, Barrenen publizitatea egin genuen bi astetan. Lehenengoan EUSKALDUNAK BEHAR DIRA ZUBI BAT ERAIKITZEKO besterik ez zuen ipintzen eta bigarrenan aurkezpeneko egun, ordu eta lekua ere bai.

Aurkezpen publikoa: 2001-05-18 ostirala. 19:30

- **TRIKITIXA IKASTAROA**

2001eko martxoan hasita. Iluntze/gauean.

10 saio

26 lagunek eman zuten izena eta horietako 8 euskara ikasleak ziren. Jendea gustura aritu zen.

Ikastaroa bukatu ostean, eta talde batek eskatuta afaria antolatu zen. Ez zen jende gehiegi joan baina giro polita egon zen.

- **IKASTURTE BUKAERAKO AFARIXA**

2001-06-15

Asmoa San Lorentzon afari-merienda bat egitea zen, kanpoan giro berezia sortzen dela pentsatu genuelako baina, ordua berandu arte zehaztu ez genuelako eta eguraldi txarra zetorrela entzun genuelako Toletxen egitea erabaki genuen.

32 lagun elkartu ginen afaltzeko, izena emandakoak baino 3 gehiago.

Afaldu ondo eta giroa ona.

Halere euskaltegi bateko eta bestekoen arteko harremana hotz samarra izan zela aipatu genuen.

- **IRTEERA URBASA ETA UREDERRARA**

2001-06-15 zapatua

oso jende gutxik eman zuen izena eta suspenditu egin zen.

- **BERBABARRI MINTEGIA**

2001-06-22

Bilbon, BERBA BARRIK "ikastetik egitera" mintegia prestatu zuen. ARIGERA proiektuaren estiloko proiektuak ditugun herri desberdinetakoek geure proiektuari buruzko azalpenak eman genituen.

- **OSKORRI & THE PUB IBILTARIA**

2002-05-17, 22:15

20 bat ikasle joan ziren, guztira 222 lagun.

- **MATRIKULAZIO KANPAINA BATERATUA**

Barren astekarian jendea euskara ikastera animatzeko publizitatea.

2002

- TERTULIAK

01-02 ikasturteko tertulien balorazioa 2001 urtean.

02-03 ikasturtean TERTULIAK egitasmoarekin jarraitzeko asmoa daukagu.

Iraila urria bitartean izen ematea.

Urria bukaera aldera taldeak osatu.

Azaroaren hasiera aldean martxan ipintzeko asmoa.

- TXIKITEOA

Berba Laguna egitasmoaren barruan, TERTULIAK egitasmoaz gain noizean behin bestelako jarduerak antolatzea zen gure asmoa.

2002-01-25 ostirala

Euskaldun zaharrak eta berriak elkartzeko antolatu zen.

Euskara ikasle bat eta 6 euskaldun zahar azaldu ziren.

- XOXOTERA IRTEERA

2002-02-23 zapatua. 09:00etan elkartu eta eguerdira arte.

5 euskara ikasle eta 3 euskaldun zahar Xoxotera joan ziren goiz pasa.

Eguraldi eskasa egin zuen baina balorazioa positiboa izan zen.

- BEHE URRATSETAKO IKASLE BERRIEI PROIEKTUA AURKEZTU

2002ko urtarrilean behe urratsetako 4 taldeetan proiektua azaldu eta beraien iritzi eta nahia jaso.

- SUKALDARITZA IKASTAROA

2002-04-13, zapatua.

11 lagunek hartu zuten parte.

Zaharren egoitzan.

Balorazio positiboa.

- EUSKARA IKASLE OHIEN ESPERIENTZIAK

2002ko martxoan (Aste Santuko oporren aurretik) 4 taldeetan eta uztailean (ikasturtea amaitu aurretik) talde baten (arrazoi desberdinegatik).

Behe urratsetako taldeetara euskara ikasle ohiak joan ziren beraien ikasle garaiko esperientziak kontatzera. Balorazio positiboa.

LABURPEN TAULA

	JENDEAREN PARTEHARTZEA		
	Ikasleak	Bestelakoak	Guztira
1999			
Proiektua eta gogoeta idatzi			
1. urteko egitasmoa prestatu.			
Aurkezpena prestatu			
2000			
Aurkezpena			120
Promozioa			
Euskal off antzerkia			180
Datu basea osatu (99-00 ikasturtea)	82		82
Aurkezpena gelaz gela			
ARIGERA txotx!			100
Ikasleekin bilera			
Tertuliak	79		44+35
Trikitixa ikastaroa	14	1	15
Oskorri & the pub ibiltaria			300
Arigera jaixa			40
Matrikulazio kanpaina bateratua			
Talderik gabeko 2 ikasle talderatu			
Datu basea berritu (00-01 ikasturtea)	88		88
Gehigarria			
Elgoibarko helduen euskalduntze alfa... historia jaso			
2001			
Historia argitaratu eta aurkeztu			
Omenaldia			100
Zaharrak berri kanpaina			
Bertatik bertara			
Tertuliak	30	15	(30)+45
Trikitixa ikastaroa	8	18	26
Ikasturte bukaerako afarixa			32
Urbasa-Urederrara irteera			--
"Ikastetik egitera" mintegia			
Oskorri & the pub ibiltaria	?	?	261
Matrikulazio kanpaina bateratua			
Datu basea berritu (01-02 ikasturtea)	72	50	122
Haur jolas eta kantu ikastaroa	2	10	12
2002			
Tertuliak			(45)+
Txikiteoa	1	6	7
Xoxotera irteera	5	3	8
Behe urratsetakoei proiektua aurkeztu			
Sukaldaritza ikastaroa	11	1	12
Euskara ikasle ohien esperientziak			
Euskaltzaindiaren araugintza	--	--	--
Igartubeiti baserrira irteera	--	--	--
Gehigarriak			
Oskorri & the pub ibiltaria	20	202	222